

Sifili eta gonokozia diagnostikoak EAEko STIko zentroetan: ezaugarri kliniko- epidemiologikoak

2005eko uztailetik 2011ko abendura arteko emaitzak

BERTSIO LABURTUA

Sexu-transmisiozko infekzioak (STI) osasun publikoaren arazo garrantzitsu bat dira, bai beraien morbiditateagatik bai beraien konplikazio eta ondorioengatik, goiz diagnostikatu eta tratatzen ez badira. Horrez gain, erlazio handia dute GIBaren ondoriozko infekzioarekin: batetik, STIek GIBa hartu eta transmititzeko arriskua areagotzen dute, hainbat mekanismoren bidez; eta, bestetik, GIBarekin transmisio-bideak partekatu eta latentzia-periodo laburragoa dutenez, aldaketa-adierazletzat jotzen dira arrisku-jokabide sexualen arloan.

Jagoletza Epidemiologikoko Estatuko Sarearen datuen arabera, STIak Espainian asko ugartu dira, 2004tik Estatu mailan jakinarazitako sifili- eta gonokozia-kasuei dagokienez. 2005eko maiatzean, **Sexu-Transmisiozko Infekzioei buruzko lantaldea sortu zen (STIei buruzko lantaldea); gaur egun, STIak diagnostikatu eta tratatzeko 8 autonomia erkidegotako 17 zentrok osatzen dute.**

Hauek dira lantaldearen helburuak: a) sifili infekzioso eta infekzio gonokozikoaren kasuen joerak zentro parte-hartzaileetan monitorizatzea, b) sifili eta infekzio gonokozikoaren diagnostiko berriak ezaugarritzea, eta c) diagnostiko hauek zein zirkunstantzian egiten diren aztertzea.

Txosten honetan sifili infekzioso eta infekzio gonokozikoaren diagnostiko berriak deskribatzen dira, lantaldean parte hartzen duten EAEko STIko zentroetan identifikatutakoak, hain zuzen.

Sifili- eta gonokozia-kasuen banaketa, diagnostiko eta zentro parte-hartzailearen arabera



Zentroa	Kasu-kop.	Diagnostikoa	
		Sifilia	Gonokozia
STG-Infekziosoen Unitatea Basurtuko Ospitalea (Bilbao)	871	245	642
STG-Mikrobiologia Unitatea. Basurtuko Ospitalea (Bilbao)	165	79	90
STG kontsulta Donostia-San Sebastián	153	65	89
GUZTIRA	1189	389	821

Sifili infekzioaren diagnostiko-kopurua, zentroaren eta diagnostiko-urtearen arabera

	Diagnostiko-urtea							GUZTIRA
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	
STG-Infekzioaren Unitatea Basurtuko Ospitalea (Bilbao)	13	14	35	43	54	40	46	245
STG-Mikrobiologia Unitatea. Basurtuko Ospitalea (Bilbao)	2	6	8	19	18	15	11	79
STG kontsulta Donostia-San Sebastián	2	5	11	10	11	15	11	65
GUZTIRA	17	25	54	72	83	70	68	389

Gonokoziaren diagnostiko-kopurua, zentroaren eta diagnostiko-urtearen arabera

	Diagnostiko-urtea							GUZTIRA
	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	
STG-Infekzioaren Unitatea Basurtuko Ospitalea (Bilbao)	30	92	124	82	74	108	122	642
STG-Mikrobiologia Unitatea. Basurtuko Ospitalea (Bilbao)	8	33	11	8	10	5	15	90
STG kontsulta Donostia-San Sebastián	5	13	10	6	12	17	26	89
GUZTIRA	43	138	145	106	96	130	163	821

Sifili- eta gonokozia-diagnostikoen banaketa, adinaren eta sexuaren arabera**Sifilia****Gonokozia**

Sifili- eta gonokozia-diagnostikoen banaketa, jatorriaren arabera

Jatorria	Sifilia		Gonokozia	
	Kop.	Ehunekoa	Kop.	Ehunekoa
Espainia	282	72,5	560	68,2
Beste herrialde batzuetakoak	107	27,5	260	31,7
Mendebaldeko Europa	7	1,8	11	1,3
Ekialdeko Europa	9	2,3	29	3,5
Latinoamerika	77	19,8	157	19,1
Sahara azpiko Afrika	8	2,1	27	3,3
Afrika iparraldea	6	1,5	28	3,4
Beste batzuk	-	-	8	1,0
Informaziorik ez	0	0	1	0,1
GUZTIRA	389	100	821	100

Sifili- eta gonokozia-diagnostikoen banaketa, GIBarekiko koinfekzioaren arabera

GIBaren aurreko egoera	Sifilia		Gonokozia	
	Kop.	Ehunekoa	Kop.	Ehunekoa
GIB +	105	27,0	75	9,1
GIB -	282	72,5	723	88,1
Informaziorik ez	2	0,5	23	2,8
GUZTIRA	389	100	821	100

Sifili- eta gonokozia-diagnostikoen banaketa, transmisio-mekanismoaren arabera

Transmisio Mekanismoa	Sifilia		Gonokozia	
	Kop.	Ehunekoa	Kop.	Ehunekoa
Babesik gabeko harreman homosexualak	272	69,9	339	41,3
Babesik gabeko harreman heterosexualak	99	25,4	467	56,9
Babesik gabeko harreman bisexualak	17	4,4	14	1,7
Informaziorik ez	1	0,3	1	0,1
GUZTIRA	389	100	821	100

GIB infekzioaren prebalentzia sifili- eta gonokozia-diagnostikoetan, transmisio-mekanismoaren arabera

Transmisio Mekanismoa	Sifilia		Gonokozia	
	Kasu-kop. osoa	GIBaren prebalentzia (%)	Kasu-kop. osoa	GIBaren prebalentzia (%)
Gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoak	289	34,3	353	18,4
Gizonezko heterosexualak	55	7,3	323	2,5
Emakumezko heterosexualak	44	4,5	144	1,4

Sifili- eta gonokozia-diagnostikoen banaketa, azken 12 hilabeteetan izandako sexu-bikote kopuruaren arabera (gutxi gorabehera)

Azken 12 hilabeteetan izandako bikote-kopurua, gutxi gorabehera	Sifilia		Gonokozia	
	Kop.	Ehunekoak	Kop.	Ehunekoak
1-2	93	23,9	228	27,8
3-5	69	17,7	176	21,4
6-10	54	13,9	131	16,0
11-20	36	9,3	69	8,4
20tik gora	65	16,7	118	14,4
Informaziorik ez	72	18,5	99	12,1
GUZTIRA	389	100	821	100

ONDORIOAK

- Zentro parte-hartzaileetan identifikatutako sifiliaren eta infekzio gonokozikoaren diagnostiko berriak, batez ere, espainiar jatorriko gizon helduei dagozkie. Herenak, gutxi gorabehera, beste herrialde batzuetakoak dira, Latinoamerikakoak, batez ere.
- Desberdintasunak ikus daitezke, sifiliaren eta infekzio gonokozikoaren diagnostikoen jatorriaren arabera, ezaugarri demografikoei, transmisio-mekanismoari eta arrisku-profilari dagokienez.
- STI diagnostiko gehienak manifestazio klinikoen ondorioz egiten dira. Sifili- eta gonokozia-diagnostikoen %40k baino gehiagok STI aurrekariak dituzte.

- Sifiliaren 4 diagnostikotatik batek, gutxi gorabehera, eta infekzio gonokozikoaren 3tatik batek beste STI bat erakusten dute, aldi berean, eta ohikoenak klamidia-infekzioa eta kondilomak dira.
- GIB/sifilia koinfekzioa %27 izan zen eta GIB/gonokozia %9; kasu gehienetan, GIBaren aurreko egoera serologikoa jakin da STI hauek diagnostikatu aurretik. GIBarekiko koinfekzioaren prebalentzian ezberdintasunak daude, transmisio-mekanismoen arabera.
- Transmisio-mekanismoak probableena, bai sifilian bai infekzio gonokozikoan, gizonezkoen arteko harreman homosexualak izan ziren, baina nabarmendu behar da gonokozia-kasuen artean gizonezko heterosexualen proportzio altua dagoela.
- Gizonezkoekin harremanak izandako gizonezkoen sifili- eta gonokozia-kasuen herenak inguru aho-sexuari dagozkio soilik.
- STI hauek hartzeko arrisku-egoera ohikoenak noizbehinkako sexu-harremanak izan ziren.
- Azterlan honetan lortutako emaitzetan, zentro parte-hartzaileetan artatzen diren pertsonen egoera epidemiologikoa islatzen da; beraz, ez dute adierazten zer gertatzen den populazioaren beste segmentu batzuetan.

STiei BURUZKO LANTALDEA

Andaluzia:

STG Zentroa, Algeciras

Justo Suárez Farfante

Granadako STG eta Sexu-Orientaziorako Zentroa

José Manuel Ureña Escribano

Esperanza Castro López

Vicenta Benavides García

Marisa Gómez Acedo

Osasuna Sustatu eta Babesteko Unitatea, Malaga

Blanca Martínez Sierra

Miguel Ángel García Raso

Laura Godoy Romero

STG Zentroa, Sevilla

Isabel Pueyo Rodríguez

Enrique Ruiz Fernández

Cinta Redondo Veral

Concepción Martínez Díaz de Argandoña

Dolores Sanchez Molina

Asturias:

Gijoneko STG Unitatea

José Antonio Varela Uría

Carmen López Sánchez

Luis Otero Guerra

STG Unitatea, Monte Naranco Ospitalea, Oviedo

Marisa Junquera Llana

Mar Cuesta Rodríguez

Fernando Vázquez Valdés

Francisco Carreño Alonso

Balearrak:

STI Artatzeko Zentroa (CAITS), Palma

Leire Gil Alonso

Katalunia:

STI Unitatea Drassanes LMZ, Bartzelona

M^a Jesús Barberá

Encarnación Arellano Muñoz

Pilar Saladié Martí

Benicio Sanz Colomo

Pere Armengol Egea

M. José Alcalde Calatayud

Eva Loureiro

Martí Vall Mayans

STI Unitatea. Tarragonès LMZ, Tarragona

Josep Boronat Hidalgo

Madril:

Hiesa eta STG Prebenitzeko Programa Madrillgo Udala

Francisco Javier Bru Gorraiz

Concepción Colomo Gómez

Alicia Comunión Artieda

Raquel Martín Pozas

Silvia Marinero Escudero

Valentziako Erkidegoa:

Alacanteko CIPS

Josefina Belda Ibáñez

Elisa Fernández García

Sonia Colomina

Trinidad Zafra Espinosa

Enrique Galán Rubio

Murtzia:

STG-Hiesa Unitatea. Cartagenako II. Barrutiko Osasun Zentroa

Jordi Balaguer Meler

Ana Isabel Villafane

Sexu-langileak babesteko batzordea (CATS)

Fuensanta Gual

EAE:

STG Zerbitzua-Gaixotasun Infekziosoak, Basurtuko Ospitalea Bilbao

M^a del Mar Cámara Pérez

Josefina López de Munain López

M^a Natividad Aparicio Basauri

M^a Antonia Aizpuru de Llanos

STG kontsulta. Mikrobiologia Klinikoko Zerbitzua, Basurtuko Ospitalea (Bilbao)

Ramón Cisterna Cáncer

Valentín Esteban Gutiérrez

Guillermo Ezpeleta Lobato

STG kontsulta. Donostia-San Sebastián

Isabel Sanz Bereciartu

Xabier Camino

Espetxeak:

Pilar Gómez Pintado

Cecilio Rey Sánchez

Estatuko Epidemiologiako Zentroa (Carlos III.a Osasun Institutua)/Hiesari buruzko Estatuko Planeko Idazkaritza:

Mercedes Díez Ruiz-Navarro

Asunción Díaz Franco

César Garriga Fuentes